



2022

Literatura lehiaketa haurrentzat

(32. edizioa)

**Certamen literario infantil
en euskera**

barañain.eus

Antolatzailea: / Organiza:



Ayuntamiento de Barañain
Barañaingo Udala



**Udalaren euskara
zerbitzua**
Servicio municipal
de euskera

Babeslea: / Patrocina:

**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**



euskarabidea

Argitaratzen diren lan hauek
Barañaingo Udalak 2022ko udaberrian
antolatutako haurrentzako literatura
lehiaketan izan dira sarituak.
Guztira 96 lan aurkeztu ziren eta
epaimahaikide aritu zirenak dira:

Estos trabajos que ahora se publican han
sido premiados en el certamen literario
infantil en euskera, organizado por el
Ayuntamiento de Barañáin en la primavera
de 2022. En total se presentaron 96 obras,
y el jurado estaba formado por:

EPAIMAHAIA | JURADO

LEHENDAKARIA | PRESIDENTE:

Pablo Arcelus Cavallero

EPAIMAHAIKIDEAK | MIEMBROS DEL JURADO:

Alaitz Institutuko irakasleak | Profesorado Instituto Alaitz

Saioa Oskoz

Julene Maia

Judith Mariezkurrena

Alaitz Ikastetxe Publikoko irakasleak | Profesorado C.P. Alaitz

David Urabayen

Gurutze Hermoso de Mendoza

Sahats-IKA Euskaltegiko irakasleak | Profesorado Euskaltegi Sahats-IKA

Ascen Argandoña

Aitziber Garralda

Matxalen Bezos

Eider Canales

Joxerra Olano

ARGITALPENA | EDICIÓN

Barañaingo Udala - Euskara arloa | Ayuntamiento de Barañáin - Área de euskera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA | DISEÑO Y MAQUETACIÓN

Cabinet

LEGE GORDAILUA | DEPÓSITO LEGAL

NA 2022-1330

AURKEZPENA

Gure zorionik beroenak literatura lehiaketa honetan parte hartu duzuen guztioi, bereziki sarituak izan zaretenoi. Argitalpen honi esker, zuen kontakizun zoragarriak (ipuinak, bertsoak eta nanoipuinak) partekatu ahal izan ditugu, guztion gozamenerako izan daitezen.

Oraingo honetan saritua ez bazara izan, gonbita luzatzen dizut berriro saia zaitezen, behar bada hurbil ibilia zara baina horren berri jakin gabe, gogoan hartu ahaleginak saria dakarkiola beti berekin.

Badira 32 urte jada literatura lehiaketa hau sustatzen gabiltzala, eta denbora guzti horretan zenbat eta zenbat istorio kontatu dituzuen jabetzeaz oso atsegingarria da guretzat. Hori guztia dela-eta, aurrera egingo dugu lehiaketarekin, maila gorenean jartzeko eta idazle talentudun berriak aurkitzeko eta aitortza erakusteko haiei.

Nire agurrik beroena eta esker ona honako esperientzia zoragarri hau ahalbidetu duzuen guztiontzat.

PRESENTACIÓN

Nuestras más sinceras felicitaciones a todos los participantes de este certamen literario, principalmente a los premiados. Gracias a esta publicación hemos podido compartir vuestros maravillosos relatos (cuentos, bertsos y nanocuentos) para que sean del deleite de todos.

Si en esta oportunidad, no has sido premiado, te invito a intentarlo nuevamente, tal vez estuviste cerca y no lo sabes, considera que el esfuerzo siempre tiene su recompensa.

Llevamos 32 años fomentando este certamen literario y para nosotros es muy gratificante constatar la cantidad de historias relatadas en todo este tiempo. Por esta razón queremos seguir adelante con el certamen, para potenciarlo a su máxima expresión y seguir así descubriendo y reconociendo a nuevos y talentosos artistas de la pluma.

Mis más cordiales saludos y agradecimientos a todos los que han hecho posible esta maravillosa experiencia.

PABLO ARCELUS CAVALLERO



Kultura eta Euskara Informazio Batzordeburua
Presidente de la Comisión Informativa de Cultura y Euskera

Sumendia erupzioan jartzen da

Saioa Iso Aranguren

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. E maila

Baziren behin bi lagun, Yesika eta Jorje izena zutenak. Yesika oso azkarra zen pentsatzen eta Jorje oso azkarra zen korrika egiten.

Bi lagunak jolasten zeuden sumendi baten ondoan eta Yesikak aurkitu zuen kobazulo bat, kobazuloan argia zegoen eta oihukatu zuen. Gero Jorje joan zen korrika egiten Yesikarengana eta jolastu zuten ezkutaketara. Gero Jorjek galdetu zion Yesikari:

—Sartuko al gara?

Yesikak baietz esan zion:

—Bale, sartuko gara.

Orduan biak bi dinosauro aurkitu zituzten eta jolasten hasi ziren baina sumendiak laba bota zuen eta korrika egin zuten. Ibai bat aurkitu zuten eta urarekin sumendiaren laba itzali zuten eta berriz jolastera joan ziren.

Gero Yesika eta Jorje etxera joan behar ziren eta triste jarri ziren. Baina beste egun batean bueltatuko ziren.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Barañaingo plazan.

Otso-gizona

Erik Manuel Sucino Moura

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. E maila

Behin batean, mendian, ile marroia zuen gizon bat zegoen. Gizonari menditik pasatzea asko gustatzen zitzaion.

Gau batean ezagutzen ez zuen bide bat hartu zuen eta bat-batean otso batekin topatu zen. Otsoak hozka egin zion gizonari eta gizona korrika etxera joan zen. Gero, hurrengo egunean, gizona joan zen lan egitera. Gauean zegoen agresiboa eta gero kakatua bat agertu zitzaion gizonari. Gero lau hanketan zegoen eta gero korrika joan zen basora eta han lo egin zen. Hurrengo egunean esnatu zen eta herri batera joan zen. Gero zegoen, haragia jatera joan zen. Sartu zen etxe batera eta etxeko gizonak susto hartu zuen eta erratza hartu zuen eta jo zion otso gizonari. Orduan etxera joan zen, gero otso gizonak untxi bat ikusi zuen eta jan zuen. Eguna argitu zenean, ikusi zuen behi bat eta jan zuen behia. Gero txori bat ikusi zuen zuhaitzean eta eskalatu zuen, baina erori zen lurrera eta kolpe bat hartu zuen, ondoren, haserretu zen eta salto bat eman zuen eta jan zuen txoria.



Ipuinak modalitatea | Modalidad cuentos

Ondoren, hartza bat topatu zuen eta hartzak otso gizona jan nahi zuen baina etxean makil bat zeukan eta ahoan sartu zion eta hortik eskapatu zen, korrika egiten. Beranduago topatu zen etxe batekin eta otso gizona sartu zen, eta nebera bat topatu zuen eta begiratu zuen eta haragia ikusi zuen, beraz, jan zuen.

Hurrengo egunean otso gizona joan zen etxe horretatik, kotxe bat hartu zuen eta kobazulo batera joatea erabaki zuen, han bizitzera geratzea erabaki zuen.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Barañaingo plazan.

Nala (Katu trebea)

Adriana Beriain Jimenez

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. F maila

Duela bi urte Nala izeneko katu bat festa batera joan zen dantzatzea asko gustatzen zitzaiolako. Nala oso polita zen eta beti bi begizta arrosa eramaten zituen. Nala zuria zen eta bere begiak urdinak ziren. Landareak asko maite zituen eta bere biboteak beltzak ziren.

Festan sartu zenean beste katu batekin topatu zen Alex izenekoa eta berarekin dantza egin zuen. Festa bukatu zenean biak elkar atera ziren eta Alexek esan zion Nalari:

—Asko maite zaitut.

Orduan Nalak erantzun zion:

—Ni berdin.

Eta biek miatzkatu ziren. Hurrengo astean hiru kume izan zituzten: Arin (mutil txikiena), Ametz (neska ertaina) eta Laura (neska handiena). Egun horretan, Alex, Nala, Arin, Ametz eta Laura hiritik bueltatxo txiki bat ematera joan ziren. Han etxe baten teilatura igo ziren gauean baina etxera bueltatu nahi zutenean... galdu ziren!

Nala pixka bat agobiatu zen Alexek lasaitu zuen. Ibili eta ibili baina ez zuten etxerik ikusten. Orduan, krokodilo batekin aurkitu ziren. Krokodiloak esan zuen:

—Kaixo, Kroko krokodiloa naiz.

Denok izutu ziren, orduan Krokok jarraitu zuen:

—Ez izutu, ez izutu. Ni berezia naiz; bakarrik belarra jaten dut.

Eta denak lasaitu ziren. Orduan, Nalak galdetu zion:

—Badakizu non dagoen gure etxea?

Eta Krokok hau erantzun zion:

—Zuria zen?

—Bai, bai! —esan zuen Nalak.



Ipuinak modalitatea | Modalidad cuentos

Eta hau erantzun zion Krokok:

- Zubi handi batetik igo behar zarete, baina kontuz, behean ura dago.
- Bale Kroko, baina... nondik dago zubia?—galdetu zion Alexek.
- Ah, hortik joan, bidea segi eta aurkituko duzue.
- Eskerrik asko! —oihukatu zuen Nalak joaten.

Bidea jarraitu zuten eta zubia ikusi zuten. Arin, Ametz eta Laura saltoka hasi ziren emozioagatik. Hurbildu zirenean, arratoi bat ikusi zuten Tilin izenekoa. Bel-durtuta zegoen baina nola inork ez zuen Tilin jan nahi, lasaitu zen eta esan zuen:

—Hau asmakizunen zubia da eta horrela erabiltzen da: nik asmakizun bat esango dizuet eta asmatzen baduzue pasatzen utziko dizuet; ez baduzue asmatzen beste bat galdetuko dizuet eta horrela asmatu arte. Prest? Bale, egongela batean sei pertsona daude eta hiru hiltzen dira, zenbat gelditzen dira? Sei? Bai! Hori zaila zen, pasa!

Pasatu zuten eta etxera ailegatu ziren.

Lurran

Nahia Hernández López

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. F maila

Orain dela milioika eta milioika urte dinosauroak Lurran zeuden eta dinosauro handi-handiak zeuden: Tiranosaurio, Trizeratops eta abar. Bere bizia arriskuan zegoen baina inork ez zekien. Harriak objektuak ziren baina dinosauroak ez ziren konturatzen.

Egun batean, diplodoko batek ongi ikusi zuen eta ahoa altxatu zuen:

- Zer da hau? —galdetu zuen diplodoko batek.
- Ez dakit —esan zuen beste diplodoko batek.

Bi diplodokoak etxera joan ziren eta entziklopedian bilatu zuten:

- Hara, teleskopio bat da —esan zuten.
- Gose naiz —esan zuen diplodokoak.
- Erabiliko dugu teleskopioa eta gero bazkalduko dugu. —esan zuen besteak.
- Hara! Zer da hori?
- Meteorito bat?
- Bai!!!
- Ihes egin behar dugu?
- Bai!!!



Ipuinak modalitatea | Modalidad cuentos

—Eta arriskutsua da?

—Bai!!!

—Eta orain zer?

—Hilko gara?

—Bai, seguru.

—Baina nik ez dut hil nahi —esan zuen.

—Pentsatu behar dugu gauza bat —besteak.

—Badakit! Kohete bat egin behar dugu —esan zuen.

—Bai, baina oso zaila da —esan zuen.

—Saiatuko gara.

Denbora hartu zuten eta kohete bat egin zuten, konturatu gabe!

—Zer polita baina, beste dinosauroak? Zer egingo dugu?

—Ba, ez dakit, sartuko dira? —esan zuen.

—Badakit!

Orduan dinosauroak sartu nahi baldin bazuten, janaria eman behar dute. Ordu bat gelditzen zenean, botoia sakatu eta... *hiru, bi, bat* egin zuenean, **ESPAZIORA!!!**

—Espazioan gaude!!!

—Eta orain zer? Lurrak eztanda egingo du?

—Mmm, bai?

Danba!

Eta Lurrak eztanda egin zuenean espazioan geratu ziren betirako.

Gaizki zihoan erlojua

Maidar Velaz Vigneau

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. Maila

Istorio hau Barañainen gertatu zen, 2021eko apirilaren 20an. Udaletxeko plazaren erlojua gaizki zihoan eta eguna zenean gaua zela jartzen zuen eta gaua zenean egunean ginela jartzen zuen.

Egun batean, gaua zen eta jendea etxeetatik ateratzen hasi zen. Udaletxeko erlojuan goizeko zortziak jartzen zuen, umea eskolara, aita eta ama batzuk fabriketara...

Jartzen zuen eguna zela baina ez zen eguna gaua baizik. Pertsona batek ikusi zuen erlojua gaizki zihoala eta pertsona hori ni nintzen. Orduan, denda batera eramanean nuen konpontzera, denda hori Erloju-Konponketa deitzen zen. Behin konpon-



Ipuinak modalitatea | Modalidad cuentos

du ondoren, berriro Udaletxean jarri nuen eta hurrengo egunean berriro gaizki zihoan. Nik berriro dendara eraman, berriro konpondu eta Udaletxera eraman nuen. Gaua osoa erlojuari begira egon nintzen eta konturatu nintzen bizirik zegoela. Berarekin hitz egiten hasi nintzen eta azaldu nion arazoa.

Erlojuak arazoa ulertu zuen eta ez zuela berriro gaizki ibiliko esan zidan. Handik aurrera pertsonak ondo bizi izan ziren.

Egia ala gezurra bi begien artean sudurra.

Udazkena

Ekain Elizalde Gartzaron

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. Maila

Bazen behin, Aner izeneko mutiko bat. Anerrekin bederatzi urte zituen eta mendialdeko herri txiki batean bizi zen, bere ama Miren, bere aita Luis eta bere arreba Maialenekin. Anerri gehien gustatzen zitzaion kirola saskibaloia zen. Aner bihotz onekoa zen eta oso alaia.

Egun batean, Maialenek udazkena zer zen galdetu zion Anerri. Anerrekin Maialen mendira udazkena zer zen azaltzeko eraman behar zuela pentsatu zuen. Lehenik, udazkena urtaro bat zela azaldu zion. Gero, zuhaitz zahar eta handi batzuk erakutsi zizkion, esanez hosto berdeak udazkenean kolorez aldatzen direla: gorriak, horiak, marroiak...

Honen ostean, basoetako lurra udazkenean landare eta lorerik gabe gelditzen zela erakutsi zion.

Azkenik, udazkenean gaztainak, intxaurrak eta onddoak jaten direla azaldu zion. Orduan, Maialenek Anerri udazkenari buruz gehiago ikasi nahi zuela esan zion. Biak etxera joan ziren udazkenari buruzko liburuak irakurtzera.

Egia ala gezurra bi begien artean sudurra.



Laukote baten abenturak

Iraitz Saldise Berastegui

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. E Maila

Duela hiru urte, Ingalaterra, lau ume bizi ziren: Caspian, Jill, John eta Zack. Oso pertsona zintzoak ziren baina batzuetan hanka sartzen zuten.

Ipuinak modalitatea | Modalidad cuentos

Egun batean bere aiton-amonen etxean zeudela, loreontzi bat apurru zuten, Bazekiten bere aitona oso haserre jarriko zela eta horregatik errieta ez botatzeko ez-kutaleku bat bilatzera joan ziren. Azkenean Caspianek armairu handi bat aurkitu zuen. Bozketa egin eta gero altzarira sartu ziren.

Armairuan sartu eta gero altzaria uste baino handiagoa zela konturatu ziren. Denbora bat pasata Jillek esan zuen; “Zein handia den armairu hau” eta justu momentu horretan baso baten barruan agertu ziren. Inork ez zekien zer esan, denak nahaspilatuta zeuden baina Johnek (pertsona ezkorra zela) kekatzen hasi zen: “Esan dizuet ez garela sartu behar eta orain hau gertatu da” eta Zackek erantzun zion: “Bai, baina irtenbide bat aurkituko dugu”. Baina, horrek ez zuen ezertarako balio Johnek ihes egin zuelako. Caspian, Jill eta Zackek Johnen atzetik joan ziren baina Johnek asko korrikatzen zuen eta ez zuten harrapatu. Bost minutu geroago John konturatu zen basotik atera zela, inguruan soinu ahul batzuk entzuten ziren, Ondoren konturatu zen soinua egiten zuenak lera bat zela eta lerari tiraka hartzak zeudela. Bat-batean leran zegoen emakumeak zaku bat hartu eta bertan John sartu zuen. Oraindik basoan besteak zeuden, negarrez, uste zuten ez zutela inoiz berriro ikusiko. Baina, momentu horretan lehoi handi-handi bat beraien aurrean agertu zer eta “Zer gertatzen da?” galdetu zuen eta umeez dena kontatu zioten. Geroago lehoiak hau esan zuen: “Nik bueltan ekarriko dut eta zuen mundura bidaliko dizuet”.

Itxaropenaldi luze baten ondoren lehoia bueltatu zen eta bera bizkarrean John zeraman. Anaia-arrebak elkartu eta besarkada bat eman zioten elkarri. Ondoren Jillek lehoiari eskatu zion beraien mundura bidaltzea eta horrela beraien mundura itzuli ziren. Hortik aurrera John, Jill, Caspian eta Zack pertsona alaiak izan ziren betirako.

Escape of the school!

Narao Iriarte Paule

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. E Maila

Egun batean Rbloxeko joko bat ikusi nuen. Oso ona ematen zuen, *Escape of the school* deitzen zen. Sartu nintzen eta nire mugikorretik argi urdina eta zuria atera zen. Ukitu nuen eta joan nintzen pasabide batera, argiak itzali ziren eta bat-batean...

Irakasle bat ikusi nuen, erregela bat zeukan eskuetan eta ni jarraitzen ninduen. Korrika hasi nintzen, gero gezi gorri batzuk ikusi nituen. Zulo bat zegoen eta sartu nintzen. Orain ez zegoen inor, ni bakarrik. Plataforma batzuk zeuden, salto egin nuen eta ikusi nuen bigarren eta azken plataformak erortzen zirela. Maila pasa



eta gero zulo berde bat ikusi nuen. Sartu nintzen eta ahate robot bat jarraitzen ari ninduen. Gauza berde batzuk ikusi nituen. Jarraitu nituen eta zulo bat zegoen.

Sartu nintzen eta beste mailak zeuden. Pasa eta gero lurrean “kafetegia” jartzen zuen. Urrunetik sukaldari robota ikusi nuen, korrika hasi nintzen eta bat-batean...

Kalean nengoen eta autobus bat zegoen! Oso pozik nengoen, ibiltzen hasi nintzen. Hasi eta halako batean irakasle robota, ahate robota eta sukaldari robota autobusaren atzetik atera ziren, niregana etorri ziren baina ni autobusean nengoen. Autobusa mugitzen hasi zen eta jartzen zuen: “Zorionak, jokoa pasatu duzu”. Azkenean nire etxean nengoen eta ikusi nuen ni nengoela jokoaren hasieran.

Ate misteriotsua

Xubane Bidegain Martínez

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. F Maila

Duela hamabi urte, Anne izeneko neskato bat Barañain izeneko herri batean bizi zen. Anne oso alaia eta Kuxkuxeroa zen.

Egun batean bere aitarekin irristaketara joaten ari ziren...

Geroago, Anneren aitak esan zuen: “Begira Anne, ate hori misteriotsua ematen du, ezta?”

Orduan, Annek bere aitari erantzun zion: “Ba bai, ate horrek misteriotsua ematen du”. Anne egunero ate horren ondotik pasatzen zen eta horren atzean zer zegoen jakin nahi zuen. Orduan, Annek egun batean, bere motxila, urezko botila eta bokata bat hartu eta kalera joan zen. Arratsalde guztia eman zuen kalean ateari begira. Gaueko hamarrak egin zitzaizkion.

Orduan, bat-batean atea irekita ikusi zuen. Korrika atera zen atearengana. Annek atea ireki eta begira zer ikusi zuen: barruan neska bat bakarrik zegoen! Annek bere buruari esan zion: “Neska horri zer gertatzen zaio?”

Anne ezin zen aguantatu hitz egin gabe. Orduan, Anne hitz egiten hasi zen eta ez zen isildu. Geroago, neskak esan zuen: “Isildu!!! Zer egiten ari zara hemen?!”

Anne beldurtuta isildu egin zen eta galdetu zion: “Zein da zure izena?” Neska-toari aurpegi aldatu zitzaion...

“Nire izena Paula da eta hamar ditut”. Annek erantzun zion: “Nik Anne dut izena eta hamaika urte ditut”.

Aste bat geroago, oso lagunak egin ziren eta egunero banku batera joaten ziren beraiei buruz gehiago jakiteko.



Hoberenak

Sara Vasquez Ramirez

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. F Maila

Duela hiru urte, Amerikako herri batean familia bat bizi zen. Etxe horretan, Stella eta Sofia ahizpak eta bere gurasoak bizi ziren. Oso alaiak eta dibertigarriak ziren. Sofia eta Stella gimnastika erritmikoan oso onak ziren, lehiaketa asko egiten zituzten astero. Gurasoak oso pozik zeuden eta beti alabak ikustera joaten ziren. Egun batean, entrenatzaileak Italiara, lehiaketa bat egitera, joan behar zirela esan zien. Gurasoek esan zuten: “Joaten gara zuekin!” Eta alabek erantzun zuten: “Umm...Bai arrazoia daukazue”. Ondoren, bere logeletara joan ziren, mailetak egitera, oso pozik zeuden.

Egun batean, gogor entrenatzen ari zirela, bat-batean Stella erori zen. Orduan, entrenatzailea Stellarengana joan zen. Eta entrenatzaileak esan zion: “Ongi zaude? Mugitu ahal zara?” Stellak: “Ez mina asko dut, ezin naiz mugitu”. Entrenatzaileak: “Ospitalera eramango zaitut”. Sofia izugarri kezkatuta zegoen. Ospitalean esan zieten Sofia eta Stellari, Stellak hanka apurtu zuela eta beraiek oso harrituta geratu ziren. Hori bukatu zenean, ahizpek adostu zuten epaileari esatea. Sofiak, bidean, beldur asko zeukan zer esango ote zion epaileak. Iritsi zenean, bilatu zuen eta Sofiak esan zuen: “Atzeratu ahalko zenuke lehiaketa bi hilabete, mesedez? Zeren Stellak hanka apurtu du”. Epaileak: “Nola? Hori ezinezkoa da. Italiara joan behar zarete lehiaketa bat egitera. Baina, bale”.

Hilabete bat eta gero, hanka sendatu zitzaion Stellari. Sofiak eta Stellak adostu zuten beste hilabete bat hartzea entrenatzeko. Hilabete hori eta gero, momentua iritsi zen. Italiara joan ziren gurasoekin, lehiaketa eta gero itxaroten ari ziren emaitzak. Ordu bat eta gero, lehenengo postuan geratu zirela esan zioten. Orduan, mundu osoko gimnastika erritmikoan hoberenak bilakatu ziren.

Ezberdinetan berdina

Izar Otxandorena Irurtia

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. E Maila

Bazen behin, Jasmina izeneko neska zoragarri bat. Eskola hasteko hiru egun besterik falta ez zirela, oso urduri zegoen, eskola berri batera joan behar zela eta. Lagunak egiteko gogo handia zuen baina pixka bat ezberdina zenez, ez zekien bere klaseko lagunek kasu egingo zioten.



Ipuinak modalitatea | Modalidad cuentos

Azkenean, eskolako eguna iritsi zen. Jasminak, oso pozik baina pixka bat beldurturik, eskolako bideari ekin zion. Eskolako atean zegoela, ume pilo bat ikusi zituen, baina bera ez zen sartzen ausartzen, beldurra zela eta. Bat-batean, neska bat hurbildu zitzaion:

—Zu neska berria zara, ezta?

—Bai halaxe naiz, nola deitzen zara?

—Ni Leire, eta zu?

—Jasmina.

Eta Leirek, haxe esan zion:

—Zure arropa gustuko dut.

Eta Jasminak, haxe erantzun zion:

—Ba, eskerrik asko.

Eta bat-batean, txirrinak jo zuen. Jasmina, Leireren atzetik joan zen. Baina klasera sartzean, irakasleak, Jasminari, klase aurrera joateko eskatu zion! Eta irakasleak haxe esan zion:

—Kaixo, aurtan, ni zure irakaslea izanen naiz. Nire izena Marijose da.

—Kaixo guztioi, ni Jasmina naiz eta hamaika urte ditut.

Eta bat-batean, ikaskideak (Leire eta Marijose izan ezik) bere janzkeragatik barrez hasi ziren. Eta Marijosek errieta bota zien...

Patioko ordua iritsi zen eta Leire eta Jasmina elkarrekin egon ziren. Patioan, ikaskideak, Leire izan ezik, Jasminari iseka egin zioten.

Bi hilabete pasa ondoren, Marijosek, beraiek aukeratutako lurralde bati buruzko aurkezpen bat egitea proposatu zien ikasleei. Aurkezpen eguna iritsi zen eta lehenengoa Jasminaren txanda izan zen. Neskak aurkezpenari ekin zion. Marrokoari buruz hitz egin zuen. Bukaeran gelakide guztiak, Afrikako lurralde hori buruz gauza asko ikasi zituzten eta baita ere ulertu zuten, Jasminaren janzkera ez zela arraroa, bakarrik, beste herrialde bateko kulturatik hartua zela.

Gelakideak, nahiko lotsaturik sentitu ziren orain arte Jasminari emandako tratuatik eta banaka barkamena eskatu zioten.

Etxera joateko ordua zen eta bere ikaskide guztiak beregana hurbildu ziren dagoeneko.

Ikasturte amaierako, Jasminak lagun mordoa egin zituen eta oso pozik sentitzen zen bere eskola berrian.



Atea ireki eta hil

Ion López-Jamar Ramirez

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. E Maila

Gau hartan, nire gurasoak hil zituzten. Nork? Hori ez dakit baina, niregana etorriko da ere. Ez dakit noiz, ezta non ere, baina etorriko da. Hori ziur daukat.

Orain umezurztegira eraman naute, eta esan ahal nuke hemen ez direla bat ere jatorrak. Janaria nazkagarria da, eta logelak, zikin-zikinak daude. Gau batean, ezin nintzenez lokartu, ohetik altxatu eta paseo bat ematera joan nintzen. Ate bat aurkitu eta kuriositateak hilda, barruan sartu nintzen.

Han den-dena iluna zegoen. Eta, bat-batean, begi gorri bat agertu zen. Niri begira, beldurra ematen zidan, eta korrika hasi nintzen handik ateratzeko. Baina, bat-batean, zerbaitek hitz egin zuen.

—Ni heriotza naiz. Ez zara hemendik bizirik aterako. Siug!

Hil nau. Hilda nago. Hark nire gurasoak hil zituen. Ala ez?

—Galdetuko diozu zeure buruari: nola idatzi duzu hau hilda bazaude? Ba hori da, ni heriotza naizelako...

Eta hau irakurri baduzu, zuregana joango naiz. En dakit noiz, ezta non ere, baina hilko zaitut.

Heriotza.

Oscar eta katua

Adriana López-Jamar Ramirez

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. F Maila

Astelehena, hau egun aspergarria! Ala ere, pozik nengoela esan dezaket. Goiza ondo pasatu nuen eta azterketa berriren berri ez nuen jaso. Etxera itzuli eta gero, musika eskolara nindoala, katu zuri-beltz bat ikusi nuen eraikin baten ondoan zeuden zuhaixketan ezkuturik. Lau haur oihuka zenbiltzaten katuaren bila. Begirada aldendu nuen, egoerari kasurik egin gabe. Haurrek katua izutu zutenean, honek, niregana etortzea eta nire gainean salto egitea pentsatu zuen. Lurrean nengoela haurrek hurbildu ziren ondo nengoen galdetzeko. Nire ingurura begiratu nuen, katua ikusi nahian, baina ez nuen lortu. Ez nintzen haserretu. Haurrak agurtu nituen eta oinez jarraitu nuen. Denbora gutxi pasa eta gero, lepoan sekulako erremina sentitu nuen. Eskuarekin zauria ukitu nuen eta ez zen odolik atera. Musika



Ipuinak modalitatea | Modalidad cuentos

eskolara iristean, irakasleari galdetu nion eta, lepoan nuena harramazka bat zela esan zidan. Hau katu madarikatua.

Oscar deitzen naiz, hamaika urte ditut eta duela hiru hilabete eskolara itzuli nintzen. Udaberria etorri da. Mutiko erdi normala naiz. Normala, eskolara joaten naizelako, etxe batean bizi naizelako, e.a. (Erdi) hori, duela zazpi hilabete zauri bat egin nuelako...eta hortxe jarraitzen du. Berdin-berdin. Ez dit minik ematen, baina ez du hobetzen. Katu arrunt batek nire gainean salto egin zuen MEEUU batekin eta lepoan harramazka egin zidan. Ez nik, ez gurasoek, az anaiak, ez medikuek ez dakigu zer gertatu den. Eskolan baten batek esaten dit orain gauza arraroren bat zauriari buruz. Kasurik ez egiten saiatzen naiz, baina... Zer esan arrazoa badute esaten duten guztian? Zauri hau arraroa, itsusia eta beldurgarria da. Gainera, harramazka ikaragarria eta luze-luzea da. Hobe izango da lotara joatea eta idazteari uztea.

Gaur esnatu egin naiz. Baina ez dut egin gosaltzeko edo eskolara joateko. Ez. Goizeko lauretan izan da. Sua, horixe da. Lepoan sua edukiko banu bezala sentitzen jaiki naiz. Garrasika hasi naiz minari eusten saiatzen. Gurasoak eta Hodei korrika etorri dira nire gelara.

—Zer duzu? Zer gertatzen da? —garrasika hasi dira haiek ere.

Orduan, Hodeik begiak ireki ditu, pauso bat atzera emanez eta esanez:

—Zer... Zer da hori? —eskua altxatu du izututa, nire lepoa seinalatzeko—. Oscar... ZER DA HORI?

Hau da. Suaren sentsazioa benetakoa izan da. Gurasoak geldirik geratu dira. Nire lepora begira gelditu dira. Lepoaren itxura nolakoa zen esateko esperoan egon naiz, baina ez da hori gertatu. Elkar begiratu dute eta aitak eskutik hartu nau, etxeko sarrerara eraman arte.

—Tori. —esan dit amak zapatak emanez. Segituan aitak berokia eman dit—. Larrialdietara joango gara, bai?

Orain izutu aurpegia nirea izan da.

—EZ!!! —oihukatu dut.

Haien eskuetatik ihes egin dut atetik. Eskaileretatik jaitsi naiz ziztu bizian, lepoko minari gogor eusten. Kalera atera naizenean ez dut jakin zer egin behar nuen. Nora joan? Gaua zen eta... Orduan oroitu dut lepoan nuen mina. Garrasi bat bota dut eta berriro korrikan hasi naiz. Ondo jakin gabe nora joan zauria taupaka hasten ari zelaz ohartu naiz. Mina handitzen ari zela, eta ni izerdi egiten hasten nengoela estropezu egin dut. Nola ez! Ez ditut ezta zapatak jarri. Oinutsik kalean, lurrean botata. Zertan nabil ni, hau egiten?

Orduan ikusi dut. Bueno, erdizka. Gurasoek eta anaiak esan nahi ez zidatena. Lepoa gorri-gorria eta handituta nuela. Aurpegiaren zati bat horrela egoteko eta



Ipuinak modalitatea | Modalidad cuentos

ondo ikusten ez uzteko punturaino iritsi arte. Eta hori ez da dena: azala argia ematen ari zela nire lepoaren barrutik iruditu zait. Bizia zuen zerbaiten taupadak entzuten ari banintz bezala.

Dena bukatzen ari zela pentsatu dut minari eutsi ezinez entzun dudanean.

—MEEEEOU!!!

Eta sentitu egin dut ere. Katu madarikatu horrek. Berriro harramazka egin dit lepoan! Begiak itxi ditut. Mina biziagoa egiten hasi da: hainbeste, min sentitzeari utzi diodala uste dudala. Egia esanda, ez dakit mina ala ez izan bada, baina sekulakoa izan da. Begiak ireki ditudanean lepoa arraroa sentitu dut, puxika hustu bat bezala. Katua joaten ikusi dut, zerbaitekin ahoan. Baina seguru nago harramazka egitean ez zeramatzala ezer.

—OSCAR!!! —entzun dut.

Hodei, ama eta aita ikusi ditu niregana etortzen.

—Hodei! —oihukatu dut—. Esadazu, nola ikusten da zauria?

—Ea ba —ondo begiratu du nire lepoa—. Eee? Zer? Hara! Ez duzu zauririk, Oscar.

Mamu ona

Oihan Vidaurre Duque

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. F Maila

Kaixo, Miren dut izena eta orain nola mamu bat ikusi nuen kontatuko dizuet. Badakit arraroa eta beldurgarria iruditzen dela baina mamu berezi bat zen.

Egunero bezala, ama ohetik altxatu ninduen, gosaria egin zidan eta eskolara eraman ninduen. Dena normala ematen zuen baina nik zerbait arraroa sumatzen nuen nire atzetik:

—Kaixo —esan zuen ahots batek.

Bat-batean buelta eman nuen eta mamu bat aurkitu nuen!

—Zergatik hitz egiten didazu?! —esan nion mamuari.

—Badakit pixka bat arraroa dela mamu bat hitz egitea baina zure laguntza behar dut —esan zidan mamuak.

—Nire laguntza? —galdetu nion.

—Bai, mamu bat naiz baina ez dut beldurrik ematen. Ez dakit nola izutu jendea —azaldu zidan.

—Niri kriston sustoa eman didazu —erantzun nion.



Ipuinak modalitatea | Modalidad cuentos

Orduak eta orduak pasa genituen hor hitz egiten eta azkenean ulertu nion. pentsatu nuen mamua lagunduko nuela eta zin egin nion berriro beldurra emango zuela.

Klaseak amaitu eta gero mamuarekin parkean geratu nintzen eta bertan plana pentsatzen hasi ginen:

—Badakit! Nola izutzen den erakutsiko dizut —esan nion mamuari.

—Ideia bikaina —erantzun zidan mamuak.

Hurrengo egunean, mamuarekin berriro ere parkean geratu nintzen. Han, nola izutzen den azaldu nion. Hasieran mamuak ez zidan izutu baina ezinezkoa zela uste genuen, atzo beldurra eman zidalako eta berarekin ratu osoan nengoe-lako. Niri bururatu zitzaidan, mamua parkeko jendearekin probatzea. Bat-batean mamua ume txiki batengana joan zen. Mamuak “BUU” esan zion eta umea negar egiten hasi zen. Umearen aita etorri zen eta mamuak eta biok parketik ihes egin genuen. Kalezulo batera sartu ginen. Kalezulo hartan atari magiko bat ikusi genuen. Mamua sartu zen eta ni bere atzetik joan nintzen. Ez genekien non geunden baina laster konturatu ginen infernuan geundela. Han deabru asko ikusi genituen, handiak eta txikia, beldurgarriak eta oso beldurgarriak. Mamuari bururatu zitzaion deabrueri laguntza eskatzea eta deabru batengana joan zen;

—Kaixo, irakasten didazu izutzen mesedez? —galdetu zion mamuak deabruari.

Deabruak ezer esan gabe bera jarraitzeko esan zigun. Etxe arraro batera iritsi ginen eta han deabru handi bat zegoen aulki batean eserita. Deabru handiak esan zizkigun bere trukitoak izutzeko baina mamuari ez zitzaion ezertarako balio. Orduan deabruak kontatu zigun infernuko mendirik altuenean izutzeko botika zegoela. Mamua eta biok mendira abiatu ginen baina bat-batean deabru txiki batekin topo egin genuen. Deabruak asmakizun bat esan zigun eta asmatzen baldin bagenuen pasatuko ginela esan zigun:

—Lau dira guztira eta laurak urtearen barruan bizi dira. Zer dira? —galdetu zigun deabru txikiak.

—Urtaroak!!! —erantzun nion deabruari.

Orduan deabrua desagertu zen eta bidetik jarraitu genuen. Ordu bat pasa eta gero, tontorrera heldu ginen eta han zegoen botika. Mamua hurbildu zen, botika edan zuen eta menditik jaitsi ginen. Deabru handiari eskerrak eman genizkion eta atari magikora joan ginen.

Azkenean, parkera iritsi ginen eta mamuari bururatu zitzaion mutiko bat izutzea. Funtzionatu zuten!!

Mutikoak kriston sustoa hartu zuen. Mamua niregana etorri zan eta besarkada handi bat eman zidan.

Besarkada eta gero mamua desagertu zen eta ni negarrez etxera itzuli nintzen.

Eta katu, katu ipuina bukatu.



Bertso-paperak modalitatea | Modalidad bertsos escritos

Herrian

Nahia Andion Iriarte

1. SARIA

Herrian afaltzeko
tabernan bokata.
Mota asko badaude
baina ni patata.

Hondartzan izan zen
gure abentura.
Baina ze beroa zen
hondartzako ura.

Iruñean jaio zen
gure lagun Farri
hortzak zorrotzak ditu
hau bai farregarri.

Bere helburua da
jendea lagundu.
Eta bere istorioan
laguna egin du.

Espero dut ongi egon
gaurko eguna
zu bai ausarta nire
lagunik onena.

Ikusi nuenean
nik zure kopeta
iruditu zitzaidan
gelako pareta.

Ukitu nuenean
nik zure eskua
iruditu zitzaidan
nahiko estua.

Ukitu nuenean
nik zure bizkarra
iruditu zitzaidan
nahiko zakarra.

Gure herrian bada
hau bai da ugari
berriz deitu diogu
anbulantziari.

Egun on

Libe Alfonso Campo

2. SARIA

Egun on guztioi
Libe dut izena
hau esana dagoenez
banoa etxera.

Nire lagunak dira
oso lagun onak
eta beraiek dira
nire salbazioa

Niri irakurtzea
asko gustatzen zait
baina idaztea
ez da txokolatea

Musika entzutea
da nire hobya
oso politak dira
munduko abestiak



Argiaren atzean ezkutatuta

Nora Estibez

1. SARIA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1. Maila

Galduta nengoela argi bat ikusi nuen basoaren iluntasunaren erdian.

Hotz handia egiten zuen gau hartan eta ez nuen lo egiteko lekurik.

Inongo itxaropenik gabe argira hurbildu nintzen.

Bat-batean, heltzeaz nengoela, ahots fin bat entzun nuen zerbait xuxurlatzen.

Horrelako zerbait esaten zuen ahotsak:

“Argiaren atzean iluntasuna ezkututzen da”.

Nire irudipenak zirela uste nuen, nekearen ondoriozkoak, eta argirantz ibiltzen jarraitu nuen.

Momenturo gogoratzen dut gau hotz hori, infernua nagoen egunetik.

Nire amaren istorioak

Nahia Arostegui Pérez

2. SARIA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1. Maila

Nire amak beti, gauza arraroak kontatzen dizkit, baina gaurkoa harritzekoa izan da. Amak esan duenez 2020an mundu osoko pandemia bat egon zen, Covid izeneko birusarengatik. Gaur egun, hau da 2056an, birus horren kontrako txertoa hartu dezakezu. Ez duzue imajinatzen zelako mina egiten duen txerto horrek. Berak esaten dit maskara arraro bat eraman behar zutela ahoan. Zorionez nik ez dut halako gauza arrarorik eramaten. Gainera, Covida hartzen bazenuen, zazpi egun egon behar zinen zure etxean sartuta. Zuek imajinatzen duzue zazpi egun lagunak ikusi gabe, eskolara joan gabe,...ez, ez, ez, amets gaiztoak etortzen zaizkit bakarrik pentsatzearekin... ez nuke halakorik jasango, eta zuek?



Galdutako denbora

Irati Arostegui Pérez

1. SARIA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 4. Maila

Nire aitona, heldu, harro eta zoriontsu, bakarrik bizi zen. Lehen, amona zegoe-nean, asko gindoazen haiek bisitatzera, hain alai eta maitagarriak. Amona eta aitona beste hiri batean bizi ziren baina gutxienez biok elkarrekin oso gustura zeuden.

Aitona, amona falta zenetik, nahiko bakarrik sentitzen zen, ez zuen familiako inor hurbil. Guk, bilobek, ez genion kasurik egiten ezta garrantzirik ematen ere, baina egun batean koloneko minbizia zuela esan ziguten eta bizi itxaropen eska-sa zuela. Orduan, hura izan zen kezkak hasi ziren momentua baina beranduegi zen. Jada ezin genuen ezer egin, galdutako denbora ezin baita berreskuratu.



NANOIPUINAK 2022



Literatura lehiaketa gazteentzat

(32. edizioa)

Certamen literario juvenil
en euskera

barañain.eus

Antolatzailea: / Organiza:



Ayuntamiento de Barañáin
Barañáingo Udala



Udalaren euskara
zerbitzua
Servicio municipal
de euskera

Babeslea: / Patrocina:

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



euskarabidea